

Denboraren makina
Zipaioen
matxinada
orain dela 150 urte

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Urretxuko
alde zaharra
mendez mende

ARGIA

e r d i k o k a i e r a

kultura eta aisia

Euskal Munduak, dantzarako prest

Ez da ohikoa. Mugitu egiten da eta mugiarazi egingo du ikuslea. Ekainetik irailera arte Baionako Le Carré Bonnat aretoan ikusgai izan ondoren beste plazak probatzeko ordua iritsi zaio *Euskal Munduak* erakusketari. Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean dantzatuko du aste honetatik azaroaren 17a arte. Euskal Kultur Erakundearen *Batekmila* programako azken proiektua da, eta uda arrakastatsua izan du.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: EKE





Baigorriko Nafarroaren Eguna (ezkerrean) eta Irungo San Martzial eguneko alardea (eskuinean). Euskal Herriko bi ospakizun handi, aniztasunaren erakusgarri.

Mila koloredun gela

ANIZTASUNA BILATU eta aurkitu. Munduaren bila abiatu eta munduak aurkitu. “K” letraren pluraltasunarekin. Pertsona ugariaren ahotsarekin. Eta munduak aurkituta, ibiltzen hasi behar. Atzo Baionan eta Donostian gaur.

Sartu eta ezker-eskuin bi pantaila. Sorpresa: irudiak gure keinuen arabera aldatzen dira. Hau ez da zut, isil eta geldi ikusteko erakusketak. Parte hartzea eskatzen du. Hori da *Euskal Munduak*en barruan oina jarrita ateratzen den lehenengo ondorioa.

Txikia dirudi. 200 metro koadro aski ditu. Espazio horretan poesiak, bertsoak eta antzerkiak egingo dute topo; diasporak; euskaldun zahar eta berriek; kirolak eta gastronomiak. Munduak azken batean, euskaltasunetik begiratuta. Horrela ez du hain txikia ematen.

Lau ataletan banatuta dago. Sarrerako pantaila interaktiboek ikuslea giroan sartzeko balio dute eta bigarren urratserako prestatzeko: kulturari eskainitako atalerako. Itxaro Borda, Koldo Amestoy, Jose Anton Artze eta Kirmen Uriberen poemak irakurri eta entzun edo bertsolaritzari, dantzari eta antzerkiari eskainitako bideoak ikusi. Modu intimoan nahi bada, horretarako prestatutako aurikularrekin, baita ingurukoekin

batera ere, apal-apal giroa bustitzen duten doinuak laguntzaz.

Aretoaren hondoan, zutabeen moduan paratutako bideo proiektoreak daude. Sei ikus-entzunezko, euskal nortasunera hurbiltzeko sei era desberdin, Txillida eta Oteizari buruzko dokumentaletik hasita, Baiona, Angelu eta Miarritzeko arte eskolako ikasleen lanetaraino. Tartean diasporako euskaldunak, edo *11 Zubi* izeneko dokumentala, euskaldunek munduko hiri desberdinetan aukeratutako zubiak oinarri hartuta sortutako lan ikusgarria. Bideoak ikustera eserita, bisitariak erakusketaren parte bihurtzen dira.

Mediatekan amaitzen da bisita, joko interaktiboak eta norberak bere euskal mundua sortzeko prestatutako pantailarekin. Bukaerara ailegata aurpegi, hizkera eta itxura ugari buruan. Jendeari buruzko erakusketa ikusi dugu. Ezagunak batzuetan –Serge Betsen errugbi jokalaria kasu–, herritar arruntak beste askotan. Munduari begiratzeko modu desberdinak.

Kolorea eta diseinua

Estetika koloretsu eta modernoa du *Euskal Munduak*ek. Sorkuntza artistikoa da erakusketa bera, Pantxoa Etchegoin EKE-ko ordezkariaren esanetan: “Parte harrarazi ditugu argazkilari



batzuk, bideogile batzuk, antzerkilariak, multi-
median ari diren lantegiak... partaidetza handia
da erakusketan. Lekua utzi diogu sorkuntzari eta
gure parioa da gazteak hunkitzea”.

Strasbourg-eko lantegi batekin aritu dira
elkarlanean, besteak beste, apustu hori gauza-
tzeko. Eszenografia, diseinua eta irudia oso
landuta daude. Gainera, erakargarritasuna
indartze aldera animazio ugari izan dira Baio-
nan erakusketak iraun duen artean: kontzer-
tuak, hitzaldiak, dantza erakustaldiak... Ahalik
eta jende gehien hurbiltzeko sare zabala bota
dute inguruko uretara. “Iparraldean guti gora
behera bada %70 bat ez dena euskaraduna.
Gure xedea da euskal kultura horren ezaguta-
ratzea era eraginkor eta moderno batez, ahal
bezainbat publiko hunkitzea, euskaldunak
berak lehenik, bistan dena, baina euskaldunak
ez direnak ere bai” dio Etchegoinek.

Batek mila egiten du

“*Euskal Munduak* programa orokor baten
barnean sartzen da, *Batekmila* izenekoa.
‘Batek mila egiten du’ erran nahi du eta pro-
gramaren ideia da ber denboran baloratzea
euskal kultura, ekintza berezi batzuk erama-
tea eskoletan eta eskoletatik kanpo, eta eus-
karri berezi batzuk sortzea” azaldu du Etche-
goinek. Programa horren barruan egin zuten
2001. urtean *Kantuketan* erakusketa ere. 2005.
urtera arte Euskal Herrian, Frantzian eta
Herrialde Katalanetan barrena ibili zen.
Esperientzia hartatik asko ikasi zutela azaldu



Uriarte 4
01208 NARBAIZA | ARABA

www.nekatutur.net/apezetxea
apezetxea_narbaiza@hotmail.com

Euskal mundu digitalak

"Guretako oso garrantzitsua da batekmila.com". Pantxo Etchegoinek argi du Interneten aldeko apustua. Ez zuten atari berezirik sortu *Kantuketan* erakusketa antolatu zutenean, "orduan, duela sei-zazpi urte, ez zen gure helburuetan sartu eta gainera ez genuen ahalik horren egiteko". Oraingoan ordea, hasieratik egin dute sarearen aldeko apustua. "Atari berezi bat egin dugu eta emeki-emeki aberastuz joango da erakusketako edukiekin" EKEko ordezkariaren esanetan.

Orain, erakusketa munduan barrena ibiltzen hasiko



denean, garrantzia berezia hartuko du gainera. Agian erakusketa ikusteko interesa izango lukeen jende askok ezingo du *Euskal Munduak* bertatik bertara ikusi. Sarea erabili ahaliko dute baina. "Nik uste dut atari berezi hori joanen dela aberastuz eta horren bitartez errazago izanen da harremana ukatea erakustoki eta jende batzuekin". *Kantuketan* erakusketaren DVDa ere kaleratua du EKEk.

Helburua bera da: bere garaian erakusketa ikusterik izan ez zutenek ere etxean ikusi ahal izatea. Amerikako euskaldunen artean mugitu da batez ere DVD hori.

du Etchegoinek eta *Euskal Munduak* atzerrian mugitzeko harremanak eginda dituztela horri esker: "Parisen egon zen, gero Bartzelonan Euskal Etxean, Perpinyan, Bordelen, Paben, Tolosa ondoan... Nik uste, nola hori ongi pasa zen, sarea badaukagula jadanik".

Strasbourgeko diseinugileekin egindako lana ere lagungarria izango da Etchegoinen esanetan, erakusketa hara eramateko. "Nahi genuke Parisera ere eraman, baina hori, aitortzen dut oso konplikatu dela. Lan egin behar dugu Euskal Etxearekin. Baita orain ireki duten Musée des arts Premiers erakustoki berriarekin ere. Badakit egiten dituztela erakusketa ibiltari batzuk hizkuntzen eta horrelako gaien inguruan".



horietan gazteek egin lan batzuk sartu ditugulako. Horrek, bistan dena, eragina badu".

Erakusketaren egiturak ere izango du zerikusirik. Tamaina txikikoa izanda ez da jendetzarik hurbildu kolpean, baina tantakantantaka era guztietako pertsonak azaldu dira. Erakusketa intimoa delako. Norberak erabakitzen duelako zer ikusi edo entzun nahi duen. Bisitariaren esku dago neurri handi batean bere euskal mundua aurkitu eta eraikitzea. Ikuslearen jarrerak baldintzatuko du areto barruan pasako duen denbora. Etchegoinek azaldu duenez, jendeak gutxienez berrogei minutu pasa izan ditu erakusketako ataletan barrena, baina askok ordubete edo ordu eta erdi ere eman dute barruan.

Interesa piztu duela, alegia.

Antolatzaileek prestatutako bisita gidatuek ere lagundu dute hurbiltze horretan. "Ohartzen gara lantegi batzuetatik —Merkatal Ganbaratik adibidez— talde batzuk etortzen direla" esplikatu du Etchegoinek. Bere esanetan azpimarratzeko modukoa da hori, kultura munduko jendeaz gain, bestelako alorretan dabilzan pertsonak ere gerturatu direla esan nahi baitu. ■

Bisitariak ugari

Baionan egon den bitartean, arrakastatsua izan da erakusketa. Urtaroa baliatu dute publiko zabala erakartzeko. Baionarrez gain turistak —ingelesak, italiarrak eta hego amerikarrak aipatu ditu Etchegoinek— eta Euskal Herriko beste lekuetako jendea ere hurbildu da. "Ohartzen gara publiko gaztea ere etortzen dela, eduki